

Ireki

Abiertos



DeAndrés <sup>24</sup>

Por una **EUSKADI ABIERTA**  
**EUSKADI IREKI** baten alde

## **EKONOMIA IREKIA EUSKADI GARATZEKO**

ZERGA-SISTEMA LEHIAKORRA.

AUTONOMOAK ETA ETE-AK

ENPLEGUA ETA LAN-AUKERAK.

BERRIKUNTZA SUSTATZEA.

INDUSTRIA

MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK.

TURISMOA

NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA, ARRANTZA ETA EHIZA.

INGURUMENA ETA URA.

## **SEGURTASUNA EUSKADIN, BENETAKO LEHENTASUNA**

## **EUSKAL OSASUN-SISTEMAK ERREFERENTZIA IZAN BEHAR DU BERRIRO**

LEHEN MAILAKO ARRETA

TALENTUA ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA.

OSASUN-SISTEMA

ARRETA ASISTENTZIALA

GAIXO KRONIKOAK, ADINEKOAK ETA MENDEKOTASUNA DUTENAK.

OSASUN MENTALA

ADIKZIOAK

PREBENTZIOA

OSASUN-IKERKETA

## **ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ERREALITATEA EUSKADIN**

## **PERTSONEZ OSATURIKO EUSKADIREN ALDE**

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE)  
FAMILIA-POLITIKAK ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA  
EMAKUMEA: BERDINTASUN ERREALA ETA ERAGINKORRA  
ZAHARTZE AKTIBOA ETA MENDEKOTASUN-EGOEREN PREBENTZIOA  
SILVER ECONOMY  
ESPAZIO SOZIOSANITARIOA ETA MENDEKOTASUNA  
GIZARTE-BAZTERKERIAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ARTATZEA  
EUSKADI INKLUSIBOAGO BATERANTZ  
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI AUKERA-BERDINTASUNA  
BERMATZEAREN ERRONKA  
IMMIGRAZIOA  
GARAPENERAKO LANKIDETZA  
GAZTERIA  
KULTURA  
KIROLA EUSKADIN

## **EUSKAL HEZKUNTZA: ASKATASUNA ETA EMAITZAK HOBETZEA**

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA/EDO DESGAITASUNA DITUZTEN  
IKASLEAK  
LANBIDE-HEZIKETA BULTZATUKO DUGU MAILA GUZTIETAN  
UNIBERTSITATEA EUSKADIN

## **KONEKTATUTAKO EUSKADI IREKIA: AZPIEGITURAK**

## **EUSKAL ADMINISTRAZIOA: EUSKAL GIZARTEAREN BENETAKO BEHARREN ZERBITZURA**

Ireki



### **Kaixo:**

Hauteskunde-programa batek funtsezko bi elementu izan behar ditu: batetik, aurkezten den proiektu politikoaren gako ideologikoak, eta, bestetik, diru publikoa kudeatzeko ideiarik garrantzitsuenak. Bi eginkizun horiek jasota daude aurkezpen honetan, zeinaren bidez jartzen baitizugu gure gobernu-plana mahai gainean.

Alderdi ideologikoari dagokionez, programak askatasun-esparru bat planteatzen du; pertsonenganako konfiantzatik abiatuta, esparru mesedegarri bat osatu nahi dugu, langileek, profesional liberalek eta enpresaburuek beren ekimen ekonomikoa garatu ahal izan dezaten. Guztia ere proposatzen dituzten arrakastak eskuratu ahal izateko eta, hartara, gizarteari zerbitzurik bikainena ematea lortzeko.

Gauza publikoen kudeaketari dagokionez, programa honek zenbait ideia aurkezten ditu, zergadunen diruari ahalik eta eraginkortasun handinez baliatzeko; hala, zerbitzu publikoak eskaini ahal izango ditugu, eta behar-beharrezkoa baino ez diegu aterako gizartean eta gizartearentzat aberastasuna sortzen dutenei.

Proposamen hauetakoren batek interesa pizten badizu, ohartuko zara guztietan ageri dela zerbitzu publikorako bokazio handia, baita elkartasunez jokatzeko nahia ere, gizarte heldu bati dagokion moduan; betiere berdintasunaren ikuspegia abiapuntu harturik eta pertsonen askatasuna errespetatuz. Izan ere, haiek dira onuradunak eta, azken buruan, haiek eskaintzen dute zerbitzu bakoitza eta haiek ematen dituzte inbertsio guzti-guztiak.

Gure proiektuei buruz dituzun kezkei erantzuna topatuko diezulakoan. Eskerrik asko zure interesagatik.

**Javier De Andrés**  
*Lehendakari hautagaia*



# EKONOMIA IREKIA EUSKADI GARATZEKO

## ZERGA-SISTEMA LEHIAKORRA

- Mekanismo bat sortuko dugu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) urteko deflaktazio automatikoa ziurtatzeko, inflazioak karga fiskal handiagorik ez sortzeko zergadunei eta erosteko ahalmenari eutsi ahal izateko.
- Lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS) kobratzen duten kotizatzaileak salbuetsi egingo ditugu PFEZ ordaintzetik, LGSa baino gehiago kobratzen duten erabiltzaileen kotizazio-tarteetatik hasita.
- Erantzun bateratu bat koordinatuko dugu Foru Aldundiekin, Euskadi ez dadin izan aurrerantzean errentarik txikienek PFEZ gehien ordaintzen duten autonomia-erkidegoa.
- Egungo tasen modernizazioaren buru izango gara, eta ezabatu egingo dugu zergapetze bikoitza.
- Eskualdatzeen gaineko zerga jaisteko lan egingo dugu, ez daitezzen zigortu ohiko etxebizitzaren senidearteko eskualdatzeak eta ezkontideen zein ondorengoen arteko dohaintzak.
- Seme-alabengatiko zerga-kenkariak hobetuko ditugu, eta kenkari espezifiko bat sortuko dugu familia ugariantzat.
- Jaiotza-tasa, familiaren eginkizuna eta “negu demografikoa” deiturikoa iraultzen laguntzeko fiskalitate-eredu bat sustatuko dugu.
- Proposatuko dugu neurri fiskal berrien aplikazioa aztertzea, etxebizitza libreak eta babes publikokoak alokatzen laguntzeko.
- Legegintzaldian zerga berririk ez sortzeko konpromisoa hartzen dugu, segurtasun fiskala emateko gure lurraldearen alde egitea erabakitzen duten pertsona eta enpresa guztien inbertsioei.
- Jarduera ekonomikoak sustatzea, inbertsioak eta berrikuntza erakartzeko eta, hartara, gure ekoizpenari balio erantsi handia emateko.

## AUTONOMOAK ETA ETE-AK

- Gizarte Segurantzako kuotei hobariak emateko laguntza-programa: 0 kuota 30 urtetik beherako gazteentzat eta 55 urtetik gorakoentzat lehenbiziko bi jarduera-urteetan, baldin eta langile autonomo gisa hasten badira.
- Autonomoentzako laguntza-programa bat sortuko dugu, lehenbiziko langilea kontratatzeke; hari esker, lehen urtean izaniko gizarte-kotizazioen % 50eko hoberia emango dugu.
- Hobekuntza fiskal bat proposatuko dugu, autonomoek langileak kontrata ditzaten laneko bajen kasuan; horretarako, kenkari nabarmenak aurreikusiko ditugu, langileen kostuaren % 40ra irits daitezkeenak, baja-denboran eta amatasun-baimenetan ordezkapenak egiteko.
- Autonomoen tarifa supermurriztua ezarriko dugu landa-eremuko autonomoentzat, pizgarri gisa balio dezaten gure landa-eremuetatik alde egin beharrik ez izateko.
- Autonomoen eta ETEen burokrasia murrizteko lan egingo dugu, administrazio-maila guztietan.
- Familia-enpresetan belaunaldiarteko erreleboa errazteko neurriak ezarriko ditugu, transmisioa eta jardueraren jarraipena errazteko.
- Eskura ditugun finantza-tresnak hobetuko ditugu kreditua errazago lortzeko (abal-sistema, maileguetako interesen hobariak, partaidetza-maileguak eta arrisku-kapitala).
- BERRITZE plana autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat (ETE), jarduketa-ildo hauekin:
  - Beren jarduera gauzatzeko beharrezko ekipamendu-ondasunak eta prozedukzio-ekipamenduak berritzeko.
  - Ibilgailu motordunak berritzeko eta 3.000 eurorainoko laguntzak ibilgailu bat ordezteko, barnean harturik ibilgailu elektrikoak eta erredukuntzakoak.
- Babes-neurriak artikulatuko ditugu langile autonomoek berriro ekiteko edo bigarren aukera izateko.

## ENPLEGUA ETA LAN-AUKERAK

- Lanbideren lan-bitartekaritzako tasa hobetzeko lan egingo dugu, erreferentziako agente aktibo bihurtuz.
- Lanbideren bidez talentua erakartzeko plana, eskaera handiko profilak eta profesional faltagatik estali ezin direnak Euskadira ekartzeko.
- Euskadira itzultzeko plana atzerrian bizi diren euskaldunentzat, bai emigranteentzat, bai haien ondorengoentzat; halaber, haien oinarritzko premiak erabat estaltzea, hezkuntza- eta lan-integrazioa erraztuta.
- Gazteei dagokienez:
  - Zerga-pizgarriak, kenkariak eta/edo hobariak proposatuko ditugu, lehenbiziko lan-jarduera Euskadin hasten duten 30 urtetik beherako euskal gazteak modu egonkorrean kontratatzeke.
  - Praktikak sustatuko ditugu gure inguruko enpresetan gazteen lehenbiziko lan-jarduera gisa, eta hobariak emango ditugu praktiketatik kontratazio egonkorrera igarotzeko.
  - Karrera zientifikoa sustatzeko laguntza-zuzkidura hobetuko dugu.
- 45 urtetik gorako langabeei, emakumei eta talde kalteberei dagokienez:
  - Kontratazioa sustatuko dugu zerga-kenkari bidez, eta gizarte-kostuen % 50 estaliko dugu lehenbiziko bi ekitaldietan, kontratazio finkoen kasuan.
  - Lan-orientazioko eta enplegurako prestakuntzako programak areagotuko ditugu, iraupen luzeko langabeen kasuan.
- Lanbideren funtzionamenduari buruz:
  - Izapide burokratikoak murrizteko lan egingo dugu, bai eta prestazio ekonomikoak aitortzeko epeak laburtzeko ere.
  - Laneratzera bideratutako langile gehiago jarriko ditugu, giza baliabideen kudeaketan esperientzia profesional egiaztagarria dutenak, prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuak sortzeko eta, hala, enplegarritasuna hobetzeko.
  - Langileen etengabeko prestakuntza bultzatuko dugu lan-bizitzan (reskilling eta upskilling).

## BERRIKUNTZA SUSTATZEA

- I+G+Bko inbertsioa sustatuko dugu, harik eta Europar Batasuneko inbertsio-mailara iritsi arte.
- Teknologia berrien alorreko irakaskuntzak sustatzea, hala nola hidrogenoaren teknologiarekin lotutakoak, eta egungo errealitate berritzaileetara egokitzea lanbide-heziketako eta unibertsitateetako ikasketen katalogoa.
- Enplegua sortzen, lehentasunezko sektoreak dinamizatzen eta lehiakortasuna hobetzen duten balio erantsi handiko proiektu estrategikoen erakarpina sendotzea.
- Teknologia-transferentzia, teknologia-oinarria duten enpresen sorrera eta garapena eta startupak oztopatzen dituzten arau-trabak ezabatzea.
- Unibertsitateen eta teknologia-zentroen ezagutza enpresetara transferitu dadin bultzatzea.
- Autonomoen eta ETEen proiektu berritzaileen finantzaketa-lerroak eta arrisku-kapitaleko sozietateen presentzia hobetzea.
- Aurrerapen teknologikoak aplikatuko dituzten eta etorkizuneko enpresen ernamuin izango diren startupen sorrera bultzatzea.
- Eskainitako zerbitzuak hobetzeko ekoizpen-prozesu efizienteagoak ezartzen laguntzea.

## INDUSTRIA

- Gure apustua izango da segurtasun juridikoko esparru egonkor bat bermatzea Euskadin inbertitzea erabakitzen duten enpresei.
- Inbertsioak sustatuko ditugu errendimenduak hobetuko dituzten eta maila teknologiko handiagoko produktuak eskainiko dituzten produkzio-ekipoetan.
- Zerga-esparru erakargarri baten bidez, atzerriko inbertsioak gure lurraldera iristea bultzatuko dugu.
- Euskadin enpresa berriak instalatzeko behar diren izapide burokratikoak eta administrazio-ahalegina erraztuko ditugu.
- Lege-, administrazio- eta zerga-esparru egokia sustatuko dugu enpresen kontzentrazio-prozesuetarako.
- Digitalizazioa bultzatuko dugu, eta lurralde osoan zabalduko ditugu banda zabala eta 5G sareak.
- Autokontsumo industrialeko ekimenak sustatuko ditugu eta modu lehiakorrean salduko ditugu energia-soberakinak.
- Ekonomia zirkularra eta erabilitako baliabideen erabilera efizientea bultzatzen duten ekimenak proposatuko ditugu.
- Produkzio-zentroetatik portu eta aireportuekin loturak izatea bultzatuko dugu, logistika-kostuak murrizteko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko.
- Forondan enpresa-parke bat sortuko dugu: hub logistiko gisa jarduteaz gainera, gure enpresen kostu logistikoak murrizten lagunduko du.

## MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK

- Diruz lagunduko dugu TicketBai abian jartzeko behar den ekipamendu-kostuaren % 100, bai eta urteko mantentze-lanen kostuak ere.
- Merkataritza txikira bideratutako bulego bat sortzea, merkatariei, autonomoei eta ETEei administrazioarekin harremanetan laguntzeko; ildo horretan, eskura dituzten programei buruzko informazioa emango diegu eta TicketBai kudeatzeari buruzko edozein gorabehera edo zalantza konpontzeko lan egingo dugu.
- Erraztasunak emango ditugu Administrazioarekin egin beharreko izapide guztiak aurrez aurre, online eta/edo merkataritza-lanari eragiten ez dioten ordutegietan egin ahal izateko.
- Talka-plan bat egingo dugu, sektorearen eraldaketa digitala sustatzeko eta kontsumo eta kontsumitzaile tipologia berrietara egokitzeko, bai eta hura garatzeko behar diren baliabideez hornitzeko ere; horretarako, merkatarien elkarteek ezarpen-prozesuan parte hartzearen alde egingo dugu.
- Merkataritzara zuzendutako abal-programak eta finantza-laguntzako lerroak izango ditugu, toki-merkataritzaren espezifikotasuna kontuan hartuta.
- Neurri ekonomiko espezifikoak ezarriko ditugu emakumezko ekintzaile eta autonomoei laguntzeko, baita kontziliaziorako ere; halaber, laguntzak jarriko ditugu ordezkapen puntualetan, bajetan edo aldi baterako ezintasunetan kontratatzeko.
- Berriazko laguntza-deialdi bat diseinatuko dugu landa-eremuetan toki-merkataritza sustatzeko, sektore horrek gizarte-osagai garrantzitsua ematen baitu.
- Hutsik dauden lonjen programa bat sustatuko dugu, eta, ildo horretan, alokairu babestua bultzatuko dugu lonjetan eta merkataritza-etxabeetan, jabeei zein errentariei bermeak eskainiz. Hala, saltoki berriak sortzen lagunduko dugu.
- Merkataritza-guneen eskaintza integrala eta orekatua sustatuko dugu hirietako auzoetan, eta gure landa-eremuetan jarduerari eustea bultzatuko dugu.
- Ertzaintzarekin eta udaltzaingoekin batera lan egingo dugu, gaitu gabeko espazioetan saltzeak saltokientzat dakarren lehia desleiala desagerrarazteko.

## TURISMOA

- Finantzaketa-lerroak hobetuko ditugu turismo-azpiegiturak modernizatzeko.
- Tasarik gabeko landa-eremuak egotea sustatuko dugu, turismoa gure landa-inguruneak biziberritzeko jarduera ekonomiko gisa erabiltzeko.
- Euskadiko ostatu-etxeen sarea sortuko dugu, erreferentzia izango dena ostatu berezietan, kalitate handikoa eta bereizgarria.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako aisia eta turismo irisgarriaren erreferentzia-zentro bat sortzea, turismo irisgarriaren alorreko erreferentzia nazionala izango dena.
- Turismoaren urtarokotasuna hausten lagunduko duten ekimenak ezarriko ditugu, bisitarien etorrera urte osoan sustatuko dutenak.

## NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA, ARRANTZA ETA EHIZA

- Burokrazia murriztea.
- Leihatila bakar gisa eta administrazioen eta eragileen arteko harremanetarako gune gisa jardungo duen bulego bat sortuko dugu, eta, hala, saihestu egingo dugu gaur egun administrazio eskudunaren mende dauden bulegoetara joateko eskakizuna.
- Tokiko produktuen asteko merkatuak ezartzea sustatuko dugu (0 km), zuzeneko salmentaren bidez.
- Tokiko produktuen (0 km) kontsumoa bultzatzea Eusko Jaurlaritzaren lizitazioetan, eta, horretarako, hobariak ematea bertako produktuak baliatzeari.
- Ingurumen-administrazioaren legea aldatuko dugu, nekazaritza- eta baso-jarduera errazteko.
- Nekazarietzako, abeltzaintzako eta ureztatzaileen komunitateentzako uraren kanona ezabatzea defendatuko dugu.
- Euskal nekazarien eskubideak defendatuko ditugu, eta gure interesetara egokituko den eta gure berezitasunak kontuan hartuko dituen Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldeztuko dugu.
- Nekazaritza-ustategiak modernizatzeko laguntza-plan bat sustatuko dugu, errentagarriagoak eta lehiakorragoak izan daitezen, beharrezko teknologia berriak bultzatuz.
- Nekazaritza-makinak erosteko berritze-plan bat babestuko dugu, eta, horretaz gainera, elkarteei makineria erostea eta erabiltzea ahalbidetuko dieten formulak bultzatuko ditugu, helburu gisa harturik ustategietako ekoizpen-kostuak murriztea.
- Finantzaketa-lerro espezifikoak bultzatuko ditugu gazteak eta emakumeak buru dituzten nekazaritza-sektoreko ustategi eta jardueretarako, eta, hala, sektorearen aurrerapena eta jarduerak bultzatuko ditugu.
- Landa-ingurunean emakumeak sustatzeko plan bat garatuko dugu, enplegua, ekintzailtza eta erabaki-organoetan parte hartzea bultzatzeko neurriekin.
- Arrantza jasangarria sustatuko dugu, bai ekonomiaren aldetik, bai gizartearen eta ingurumenaren aldetik; garapen dinamiko eta berritzailea akuikulturaren sektorean, babes gisa harturik eraldaketa- eta merkaturatze-industria lehiakorrak.

## INGURUMENA ETA URA

- Energia berriztagarrien sorrera eta erabilera bultzatuko ditugu, erregai fosilen bidezko energia-ekoizpenaren ordez.
- Energia berriztagarrien eta laboreen arteko bateragarritasuna bultzatuko dugu, nekazaritza-lurrik ez galtzeko.
- Euskadiko zuhaitz-azalera 400.000 hektareara handitzearen alde egingo dugu.
- Ingurumen Ekintzako Euskal Plana egingo dugu, eta, haren bidez, estrategia bat ezarriko dugu natura eta biodibertsitatea babesteko neurriak bultzatzera bideratuta.
- Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa berrikusi eta eguneratuko dugu, eta dagozkion kudeaketa-planak onetsiko ditugu.
- Gasteizko mendiak parke natural gisa sustatzea proposatuko dugu, eta Gasteizko eraztun berdea ixteko zain dauden faseak amaitzearen alde egingo dugu.
- Lehentasuna emango diogu Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea mantentzeari eta hobetzeari, eta azken belaunaldiko ekipoak eta kontrol-puntu berriak gehituko ditugu.
- Hondakinak kudeatzeko plan autonomiko bat egingo dugu; euskal politiken izaera integrala izango du eta sorkuntza murriztea izango du xede nagusi.
- Uko egiten diogu Gardelegiko zabortegia zabaltzeari eta hondakin arriskutsuak hara eramateari.
- Ekonomia zirkularraren barruan hondakinen sorrera murriztea eta ondorengo errebalorizazioa sustatuko dituzten ekimenak sustatuko ditugu.

# SEGURTASUNA EUSKADIN, BENETAKO LEHENTASUNA

- Herritarrei dagokienez:
  - Poliziaren presentzia indartzea auzo eta kaleetan.
  - Segurtasun-plan bat ezarriko dugu gaueko aisialdirako guneetan, eta kaleetako agente-kopurua areagotuko dugu ostiral eta larunbat gauean. Etxera seguru itzultzeko programa bat inplementatuko dugu, gazteak gauez etxera lasai bueltatuko direla bermatzeko.
  - Emakumeentzako segurtasun-plan bat egingo dugu, sexu-askatasunaren aurkako delituak ugaritzen ari direla ikusita.
  - Euskadin legez kanpoko okupazioaren aurkako talka-plan bat egingo dugu, transbertsala eta erabateko koordinazioarekin, autonomia-erkidegoaren, foru-aldundien eta toki-administrazioen artean:
    - Herritarrei informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzua, fenomeno horren ondorioak jasaten dituzten jabe, bizilagun-komunitate eta auzoentzat, eta prozesu osoan laguntzeko zerbitzua, salaketak eta kexak bideratuz eta aurreikusitako laguntza eta zerbitzuak eskainiz.
    - Arau-aldaketa oro babestea erakunde-maila guztietan, legez kanpoko okupatzaileak ahalik eta epe laburrenean kanporatzeko.
    - Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazioa indartzea, legez kanpoko okupazioen kasuan protokolo espezifikoak ezartzeko.
    - Konpainia hornitzaileekin koordinatutako prozesuak, iruzurrezko sareratzeak eta hornidurak detektatzeko.
    - Etxebizitza okupatuta dagoen bitartean ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ) ez kobratzeko beharrezkoak diren arau-aldaketak sustatzea eta Eudelekin koordinatzea, udalek har ditzaten beren gain ur- eta zabor-gastuak okupazioak irauten duen bitartean.
  - Gazte-taldearen aurkako borrokan espezializatutako unitate bat sortuko dugu.
  - Arma zurien eta labanen aurkako estrategia prestatuko dugu.
  - Premiazko plan bat gauzatuko dugu agenteen ekipamendu pertsonala berritzeko eta hobetzeko.

- Prozedurak modernizatzeko plan bat egingo dugu, burokrasia arintzeko eta agenteek patruilatzekeo prestasun handiagoa izan dezaten.
- Herritarren salaketak aurkeztea erraztuko dugu, bai online, bai aurrez aurre, izapide azkarrago eta ez hain burokratikoekin.
- Euskadin ustelkeriaren aurkako fiskaltza bat sortzea eskatuko dugu.
- Genero-indarkeriaren euskal fiskaltza sortuko dugu.
- Euskadin diharduten polizia-indar guztien jarduera koordinatua sustatuko dugu.
- Gure eskumenen esparruan, droga-trafikoaren aurkako borroka areagotuko dugu.
- Ertzaintzako agenteen egoerari dagokionez:
  - Ertzaintzaren plantilla osatu eta antolaketa hobetuko dugu, ertzainak ez daitezzen egon behartuta egun libreetan taldeak sendotzera.
  - Hizkuntza-eskakizunen arauak aldatuko ditugu, lurralde bakoitzeko errealitate soziolinguistikora egokitzekeo.
  - Urtean 35 prestakuntza-ordu bermatuko ditugu agente bakoitzarentzat, eta ertzaintzako prestakuntza-plan pertsonalizatuak ezarriko ditugu.
  - Polizia-agintarien izendapenen meritua, gaitasuna eta gardentasuna ziurtatuko eta bultzatuko ditugu, eta mugatu egingo ditugu izendapen askeak lanpostuen hornikuntzan.
  - Laguntza instituzionala emango diegu ertzainei beren jardueretan, eta haien lana duinduko dugu.
  - Jaurlaritza akusazio partikular gisa pertsonatuko da, baldin eta ertzainak atentatu-delitu baten biktima badira, bai eta lanean diharduela jasandako eraso biktima direnean ere.
  - Polizia kudeatzeko bestelako eredu bat bultzatuko dugu, eta profesionaltasuna, eraginkortasuna eta herritarrei zerbitzu hobea ematea izango dira lehentasunak, eta ez premia politikoak.
  - Azpiegiturak eraberritzeko, hobetzeko eta modernizatzeko plan bat garatuko dugu.
  - Ertzaintzaren ibilgailuak berritzeko eta modernizatzeko premiazko plan bat ezarriko dugu.
  - Miñoien Sekzioari eutsiko diogula bermatzen dugu.



# EUSKAL OSASUN-SISTEMAK ERREFERENTZIA IZAN BEHAR DU BERRIRO

## LEHEN MAILAKO ARRETA

- Talka-plan bat proposatuko dugu Lehen Mailako Arretarako, espezialista falta betetzen laguntzeko eta Lehen Mailako Arretako zentroetako baliabideak berrantolatzeko.
- Osasun-zentroetako jarduera berrantolatuko dugu, langileen ratioak birdefinituko ditugu, esleitutako kupoak berrikusiko ditugu eta berriz diseinatuko ditugu profesionalen agendak.
- Burokrazia murriztuko dugu Lehen Mailako Arretan, batez ere familiako medikuentzat, pazienteak artatzeko denbora gehiago izan dezaten.
- Emaginek Lehen Mailako Arretan duten zeregina indartuko dugu —erditzea prestatzen, edoskitzean eta erditze ondoko aldian—, emakumeek etapa horietan jasotzen duten osasun-informazioa hobetzeko jarduera espezifikoekin.
- Familia-medikuentzako etengabeko prestakuntza bultzatuko dugu trebetasun eta gaitasun berrietan.

## TALENTUA ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA

- Hizkuntza-eskakizunen araudia eta merezimendu gisa duten balorazioa berrikusiko ditugu.
- Gure profesionalen prekaritatea betikotzen duten deialdi-buxadura konponduko dugu.
- Behin-behinekotasun mailak murriztuko ditugu, eta profesional sanitarioen kontratazio finkoa sustatuko dugu.
- Iraupen luzeko kontratuak proposatuko ditugu Osakidetza lan egitera etortzea erabakitzen duten profesionalentzat.
- Hautaketa-mekanismo arinagoak gaituko ditugu, hala nola merezimendu-lehiaketa, betetzeko zailak diren plazak betetzeko.

## OSASUN-SISTEMA

- Kanpo-ikuskaritza bat egingo dugu Osakidetzako gastuaren kontrolari buruz.
- Proposatzen dugu osasun-arloko langileek inplikazio handiagoa izatea osasun-politikak diseinatzen eta planak egiten eta garatzen.
- Itxaron-zerrendak murrizteko plana eguneratuko dugu.
- Erizaintzaren eginkizuna eta rol berriak aintzatetsiko eta bultzatuko ditugu.
- Kasuak kudeatzen dituen erizainaren alde egingo dugu, etxean konplexutasun handia duten paziente kronikoen jarraipen proaktiboa koordinatzeko eta, bereziki, adinekoen egoitzetako laguntza koordinatzeko.
- Euskadiko Larrialdi Zerbitzuaren eta Premiazko Osasun Garraioaren egoera aztertuko dugu, biztanleriaren arabera dauden lurralde-desorekak konpontzeko.
- Euskadiko Osasun Larrialdiak Hobetzeko Plana berrituko dugu.
- Osakidetzan azpiegiturak eta ekipamendua modernizatzeko plan berri bat egingo dugu.
- Funtsezkotzat jotzen diren eta itxi diren zerbitzuak berriro irekitzea proposatuko dugu, hala nola Santiago Ospitaleko Larrialdiak, Basurtuko Bihotz Kirurgiako Zerbitzua eta zenbait etengabeko arretagune (EAG) eta osasun-zentro, ordu-tegiak eta langileak zabaldua.
- Zero tolerantzia izango dugu profesionalen aurkako erasoen aurka, eta protokoloak eta gidak eguneratuko ditugu Ertzaintzarekin koordinatuta; hala, behar duten laguntza guztia bermatuko diegu ukituriko profesionalei.
- Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren koordinazioa hobetuko dugu, gaixotasunaren diagnostiko goiztiarra, tratamendu egokia eta gaixotasunaren jarraipena lortzeko eta gehiegizko medikazioa saihesteko.

## ARRETA ASISTENTZIALA

- Euskadiko Plan Onkologikoa berrituko dugu.
- Hematologia eta Onkologia Pediatrikoko unitateen azpiegiturak egokituko eta hobetuko ditugu, espazio egokiak eskaintzeko tratatutako haur eta nerabeei eta haien familiei.
- Araban unitate pediatrikorik ez dagoenez, laguntzak proposatuko ditugu Gurutzetako Ospitaleko eta Donostia Ospitaleko unitateetara joan behar duten familia arabarrentzat.
- Gaixotasun neurodegeneratiboak eta neuromuskularrei buruzko Euskadiko estrategia garatuko dugu.
- Alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA) duten gaixoei laguntzeko programa bat abiaraziko dugu baliabide espezifikoekin, besteak beste, diziplina anitzeko arreta duten paziente horientzako egoitza-zentro bat; era berean, etxeko arreta emango diegu etxean bizitzea erabakitzen duten pazienteei, arreta soziosanitarioa etxean bermatzeko laguntza-plan espezifiko batekin.
- Iktusa duten pazienteak artatzeko plana jarriko dugu martxan.
- Elikadura jokabidearen nahasmenduko ospitale-unitateak handituko ditugu Euskadin, eta bi ospitaleratze-unitate espezifiko berri sortuko ditugu elikadura jokabidearen nahasmendua duten pertsonentzat.
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa hobetuko dugu.
- 65 urtetik gorakoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako aho-hortzetako osasun-plan berria, barnean hartzen dituen aldizkako azterketak, erauzketak, obturazioak, protesiak, larrialdiak eta aho-garbiketak.
- Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea artatzeko protokoloak egingo eta eguneratuko ditugu.
- 45 urtera arte luzatuko dugu euskal osasun publikoan laguntza bidezko ugalketa eskuratzeko gehieneko adina.
- COVID iraunkorra duten gaixoen beharrei erantzuteko -plan bat egingo dugu.

## GAIXO KRONIKOAK, ADINEKOAK ETA MENDEKOTASUNA DUTENAK

- Gaixotasun kronikoen agerpena eta horien progresioa murriztera bideratutako jarduera-ildo zehatzak garatuko ditugu, osasuna prebenitzeko eta sustatzeko politiken bidez.
- Zaintza asistentzialen jarraitutasuna bermatuko diegu gaixo kronikoei, eta diziplina anitzeko arreta integratua eskainiko diegu; era berean, interakzioan diharduten maila eta zerbitzuen arteko koordinazioa sustatuko dugu.
- Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia egingo dugu, gero eta zaharragoa den biztanleriaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko.
- Neurriak proposatuko ditugu zainketa aringarriari dagokienez hiru lurraldeen eta Euskadiko eremuen artean dauden ekitate-eraketak konpontzeko; bide horretan, etxeko ospitalizazioa bermatuko dugu eta ohe gehiago emango dizkiogu Arabako Lurralde Historikoari, gaur egun ez baitauka behar adinako zuzkidura.
- Zainketa aringarriari buruzko prestakuntza-programa bat sartuko dugu Euskal Herriko Unibertsitatean, eta arlo horretako profesionalen etengabeko prestakuntza bultzatuko dugu.
- Geriatriako espezialista gehiago bilduko ditugu Osakidetza sarean, Euskadin biztanleria gero eta zaharragoa baita.

## OSASUN MENTALA

- Osasun Mentaleko 2023-2028 aldirako Estrategia ezarriko dugu.
- Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren neurriak garatuko ditugu.
- Asistentzia psikiatrikoa eta osasun mentala indartuko ditugu.
- Sendotu eta hobetu egingo ditugu osasun mentaleko arazoak prebenitzeko eta goiz detektatzeko protokoloak.
- Haur eta gazteen osasun mentaleko egoitza-zentro soziosanitario bat jarriko dugu martxan Euskadin, bai eta osasun mentaleko eta desgaitasuneko profil mistoa duten pertsonentzako beste zentro espezifiko bat ere, adingabe, gazte eta nerabeentzat.

## ADIKZIOAK

- Osasun mentalaren arloko jarduerak areagotuko ditugu, adikzioekin lotutako patologiei aurre egiteko.
- Sarean lan egingo dugu, erakundeen arteko lankidetzaz indartuz drogen eta beste adikzio batzuen fenomenoari aurre egiteko, hala nola adikzio teknologikoak, ludopatia eta alkohol- eta tabako-kontsumoa; era berean, eduki pornografiko edo bortiztuetatik babestuko ditugu adingabeak.

## PREBENTZIOA

- Osasun publikoko informazio sistema eraginkor bat izango dugu, osasunerako arriskuen aurrean erantzuteko gaitasuna areagotzeko.
- Autozaintza indartuko dugu, baita herritarrek gaixotasunaren kudeaketan duten eginkizuna, erantzukizuna eta pazientearen autonomia ere, osasunerako hezkuntza-programa espezifikoaren bidez.
- Azterketa bat egingo dugu, Detekzio Goiztiarreko Programa guztien egoera berrikusteko, egungo estaldurarekin eta, kasuaren arabera, zabaltzeko aukerarekin, ebidentzia zientifikoan oinarrituta.
- Gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko jarduerak bultzatuko ditugu, baita bihotz-hodietako gertakarien errepikapena prebenitzen duen bigarren mailako prebentzio kardiobaskularra ere; ildo beretik, errehabilitazio kardiakoaren eredu hobetuko dugu, eta arreta berezia jarriko diegu Errehabilitazio Kardiakoko Unitateei.
- Sexu bidez transmititutako gaixotasunak eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzeko programak bultzatuko ditugu.
- Txertaketa-egutegia hobetuko dugu; txerto berriak sartuko ditugu eta egungo estaldura areagotuko dugu.
- Patologia berriak sartuko ditugu jaioberrien baheketa-programan, prebentzio-tratamenduak goiz aplikatu ahal izateko.

## OSASUN-IKERKETA

- Ikerketa eta berrikuntza biomediko eta sanitarioa bideratutako baliabide ekonomikoak ugarituko ditugu.
- Adimen artifizialaren (AA) ikerketa eta aurrerapen teknologiko berriak bultzatuko ditugu, osasunari eta medikuntzari aplikaturik.
- Lehen Mailako Arretan ikerketa bultzatzeko estrategia sustatuko dugu.
- Baheketa genetikoko programak ezarriko ditugu gaixotasunak prebenitzeko eta tratatzeko. Programa horien osagai hereditarioa GENOMA EUSKADI Programak irekian sortutako datu-banku bat izango da, eta, hasieratik, EAEko pazienteen DNA bilduko du.



## ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ERREALITATEA EUSKADIN

- Gaur egungo Euskadiko Etxebizitzaren Legea aldatuko dugu, etxebizitza duina, egokia eta irisgarria lortzeko benetako tresna bihurtzeko; era berean, aldatu egingo dugu egungo Lurzoruaren Legea ere, etxebizitza babestua ez ezik, librea ere arrazoizko prezioan eraiki ahal izateko.
- Etxebizitza sozialen kasuan, alokairuaren alde egiten dugu, erosteko aukerarekin. Kasuan-kasuan aztertuko dugu neurri horren zehaztapena, baina, oro har, ordaindutako hileko errentaren % 80 ere deskontatuko da hamar urteren buruan erosketa egiteko unean.
- Zuzkidura-apartamentuaren figura martxan jartzea sustatuko dugu lurzoru publikoetan, gazteei aldi baterako etxebizitza-premiari behin-behineko irtenbideak emateko.
- Etxebizitza erosteko fiskalitatea hobetuko dugu, eta areagotu egingo dugu kenkari horren gehieneko muga. Era berean, jaiotza-tasa sustatzearekin lotuko dugu.
- Pertsona fisikoen gaineko errentaren (PFEZ) gastu kengarrien ehunekoa hobetuko dugu higiezin etekinei dagokienez, egungo % 20tik % 25era, baldin eta alokairua ordaintzen duen maizterrak ohiko etxebizitza gisa baliatzen badu higiezin hori.
- Banku-abalen sistema bat ezarriko dugu, etxebizitzaren balioaren % 100erainoko hipoteka-maileguak lortu ahal izateko.
- Jabetza pribatuko etxebizitza hutsak erakartzea edo mobilizatzea sustatuko dugu, neurri positiboekin eta ez inpositiboekin.
- Eusko Jaurlaritzak Bizigune programaren jabeen ordaintzen dien alokairua hobetuko dugu, egungo gehieneko 650 eurotik 725 eurora igaroz, eta, kasu horretan, gastu kengarriengatik zerga-murrizketaren ehunekoa jasotako errentaren egungo % 20tik % 30era areagotuko dugu.
- Etxebizitza babestu publikoaren parkearen okupazioa eta erabilera erreala ikuskatzeko prozesuak garatuko eta hobetuko ditugu.
- Alokairura bideratutako etxebizitza-parke handi bat bultzatuko dugu, Jaurlaritzak berak eta bere sozietate publikoek (VISESA) etxebizitzak sustatuta, edo Jaurlaritzaren ekimenez eta udalekin lankidetzan —edo toki-erakundeekin, hala eskatzen badute—, bai eta ekimen pribatuarekin ere.

- Eskaera handia duten udalerrietan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bultzatuko dugu, eta hutsik dauden etxebizitza publiko guztiak birgaitzeari ekingo diogu, etxebizitza-parke publikoak handitzeko.
- Familia ugarien beharrei erantzuteko, errenta estandarizatuaren sistema aplikatuko dugu alokairuko edo erosketako etxebizitzaren eskatzaileen diru-sarrerak haztatzeko; etxebizitza publikoen zozketetan gordetako kupoak ezarriko ditugu, zernahi araubidetan; eta etxebizitza-kupo bat ezarriko dugu sustapen publikoetan, neurri handiagoekin.
- Hasiera batean salmentarako ziren babes publikoko etxebizitzak —eta, zehazki, babes sozialekoak eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuak— alokairuko etxebizitzaren parke publikoa areagotzeko baliatuko ditugu, baldin eta bi urte baino gehiago badaramate hutsik besterendu gabe.
- Lurzoruaren liberalizazioa eta salmenta sustatuko dugu, hainbat motatako etxebizitzak sustatzeko, araubide desberdinetan eta askotariko dimentsio, baldintza eta prezioetan.
- Berezitasunen arabera, arreta berezia eskainiko diegu landa-inguruneetan etxebizitza jabetzan edo alokairuan eskuratzeko arazoei.



## PERTSONEZ OSATURIKO EUSKADIREN ALDE

- Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu eta -prestazioen sistema moderno bat finkatzea, kalitatearen, berrikuntzaren, kontrolaren eta ebaluazio sistematikoaren alde egingo duena, prebentzio eta arreta integralera bideratuta.
- Autonomia, aukera-berdintasuna eta bizi-kalitatea hobetzea sustatuko duen sistema bat, orain eta etorkizunean finantzaketa iraunkorra izango duen lurralde-oreka bilatuta, kudeaketa-modu desberdinen aukerak aprobetxatuko dituena (publikoa, pribatua, hirugarren sektorearekiko lankidetzak) eta pertsonak beren ohiko ingurunean jarraitzea bultzatuko duena.
- Administrazio-izapideak arintzea, herritarrek eskaerak errazago egiteko eta, gainera, administrazioaren erantzuna bizkortzeko.

## DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE)

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta-sistemaren egungo erregulazioan bi kolektibo oso desberdin daude, eta bereizita tratatu behar dira:
  - Pentsiodunak eta lan egiteko gauza ez diren pertsonak, dela adinagatik, dela bestelako baldintzengatik (degaitasuna duten pertsonak, lanean jarduteko ezintasuna dutenak...). Pertsona horiek pentsioak osatu beharra dute, eta beren osagarria denbora-mugarik gabe jasotzeko eskubidea izaten jarraituko dute DSBEaren bidez.
  - Lan egiteko adinean eta moduan dauden langabeak:
    - Laguntza horiek jasotzeko, denbora-muga bat bete behar da, eta betebeharrak batzuk bete behar dira gizarteratzeko eta laneratzeko programetan parte hartzeko, bai eta prestakuntza jasotzeko ere, lan-merkatuan sar daitezela sustatze aldera.
    - Langabeek konpromisoak eta eginbeharrak hartu behar dituzte beren gain, trebatzeko eta enplegua modu aktiboan bilatzeko.
    - Euskal udalekin formalizatzen diren laneratze-hitzarmenetan parte hartzeko nahitaezkotasuna ezarriko dugu, prestakuntza eta laneratzea uztartuz, lan-munduan txertatzeko lehenbiziko urrats gisa.
    - Diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzeko 23 urteko gutxieneko adina berreskuratuko dugu, gaur egun 18 urte baita gutxieneko adina.
    - Atzeritarren kasuan, berriz ere jatorrizko herrialdearen ziurtagiri ofizial bat eskatzea planteatzen dugu, haien ondare-egoera egiaztatzeko.
    - Banakako identifikazio-sistema zalantzagabeak ezartzea eskatuko dugu.
    - Beharrezkoa da espediente bakoitzaren berrikuspen osoak berrezartzea.

## FAMILIA-POLITIKAK ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA

- Familiei Laguntzeko Lege berri bat bultzatuko dugu.
- Amatasuna Babesteko Lege bat proposatuko dugu, amatasuna babesteko politika integralak jasoko dituen; haurdun dauden emakumeei laguntzeko neurriak izango ditu, batez ere egoera zailean daudenei laguntzeko.
- Seme-alabengatiko PFEZko kenkariak hobetuko ditugu, eta kenkari espezifiko bat sortuko dugu familia ugariarentzat.
- Jaiotza-tasa, familiaren eginkizuna eta “negu demografikoa” deiturikoa iraultzen laguntzeko fiskalitate-eredu bat sustatuko dugu.
- Luzatu egingo dugu seme-alabak hazteko laguntzak kobratzeko epea: zazpi urtera arte luzatuko dugu bigarren seme-alabatik aurrera, eta 12 urtera hirugarrenetik aurrera hurrengo legegintzaldian; hirugarren eta hurrengo seme-alaben kasuan 18 urtera arte iristea izango da helburua.
- Familia ugariaren titulua emateko eta berritzeko tramiteak hobetuko ditugu, online izapidetzea ahalbidetuko dugu eta hobekuntzak ezarriko eta eskatuko ditugu automatikoki berritzeko, harik eta seme-alaba gazteenak 26 urte bete arte; kategoria bereziko familia ugariatzat hartuko dira laugarren seme-alabatik aurrera —edo hirugarrenetik aurrera, horietako batek desgaitasuna badu—, eta hobetu egingo da familia ugariaren tratamendua zaintza partekatua duten banantze- eta dibortzio-kasuetan.
- Plan estrategiko anbiziotsu bat garatuko dugu familia, eskola eta lana bateragarri egiteko: Euskadi Concilia.

## EMAKUMEA: BERDINTASUN ERREALA ETA ERAGINKORRA

- Euskadiko emakumeen langabeziaren aurkako plan bat diseinatuko dugu, gizonak eta emakumeek lan-merkatuan duten partaidetza-tartea murrizteko.
- Genero-ikuspegia hobetuko dugu aurrekontu-plangintzan, hazkunde ekonomiko handiagoa lortzen laguntzeko eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiteko.
- Politika espezifikoak garatuko ditugu berdintasuna bultzatzeko enpleguan, soldatetan, lan-baldintzen hobekuntzan eta emakumeen garapen profesionalean, eta ezabatu egingo ditugu enplegua lortzea eragozten duten oztopoak, baita zuzendaritza- zein erantzukizun-postuetara iristea galarazten dutenak ere.
- Langile autonomo gisa jarduera ekonomiko bat hasi nahi duten emakumeen ekintzailatza bultzatuko dugu.
- Kontzilioaren eta erantzukidetasunaren erronkari helduek erantzun berritzaileak eskatzen ditu, familiek —batez ere emakumeek— errazago egin ditzaten bateragarri familia eta lana.
- Gure apustua da familiek eskura dituzten kontzilio-zerbitzuak zabaltzen jarraitzea, dela haurtzaindegiak eta ludotekak, dela lantokietan haurrak zaintzeko zerbitzuak.
- Haur Hezkuntza doan ezarriko dugu 0 eta 3 urtera bitartean, izaera unibertsalarekin.
- Familiei kontzilio-baliabideak emango dizkiegu eskolaz kanpoko aldietan.
- Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez:
  - Sentsibilizazio-kanpainak eta prebentzio-ekintzak garatuko ditugu, genero-indarkeriari buruzko gizarte-kontzientziazioa sustatzeko.
  - Funtsezkoa da bereziki kalteberak diren emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta detektatzeko proiektuak bultzatzea (adinekoak, nerabeak, desgaitasuna duten emakumeak edo landa-ingurunean bizi diren emakumeak, besteak beste).
  - Ziberjazarpenaren eta indarkeria digitalaren aurkako borroka indartuko dugu, eta, laguntza- eta aholkularitza-neurriak ez ezik, gazteak eta nerabeak sentsibilizatzeko eta prestatzeko kanpainak ere ezarriko ditugu.
  - Biktimen seme-alabak ere genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen direla sendotuko dugu, eta laguntza-programa eta neurri espezifiko gehiago ezarriko ditugu haiarentzat.

- Polizia-agente gehiago jarriko ditugu emakumeak babesteko eta urruntze-aginduak egikaritzeko, dagokion jarraipen eraginkorrekarekin eta bermekin, biktimak defendatzeko eta erasotzaileak jazartzeko.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei bizitza eta garapen pertsonal berri bat hasteko modua erraztuko diegu, jasandako minaren ondoren aske eta independente izan daitezen; horretarako, laguntza-programa espezifikoak ezarriko ditugu lan-merkatuan sartzeko.

## ZAHARTZE AKTIBOA ETA MENDEKOTASUN-EGOEREN PREBENTZIOA

- Adineko pertsonak aktibo sozialtzat aitortzea sustatuko dugu; ildo horretan, adinarekin lotutako estigmatizazioaren eta tratu txarren aurka borrokatuko gara eta adinekoari behar adina baliabide emango dizkiogu bere bizi-proiektua garatzeko.
- Cohousing-esperientziatarako etxebizitzak eraikitzen eta lagatzen lagunduko dugu, Foru Aldundiekin koordinatuta; irisgarritasun-bermeak dituzten etxebizitzak eta adinekoen autonomia pertsonala sustatzen duten zerbitzu partekatuak bideratuko ditugu, nolabaiteko independentzia mantentzeko eta, aldi berean, egunerokoan beharrezko laguntzak izateko aukera ematen dien hautabide gisa.
- Neurri-sorta bat ezarriko dugu adinekoen eten digitala gainditzeko.
- Adinekoen parte-hartze soziala eta aktiboa bultzatuko dugu. Eta, bereziki, belaunaldien arteko jakintza-transferentzia, zahartze aktiboaren funtsezko ardatz gisa.
- Boluntariora sustatuko dugu adinekoen artean eta adinekoengana bideratuta.
- Adineko pertsonen parte-hartzea eta protagonismoa bultzatuko dugu, gazte ekintzaileei zuzendutako mentoring-jarduera baten barruan.

## SILVER ECONOMY

- 2025-2040 aldirako SILVER Euskal Estrategia onetsiko dugu, gure proiektzio demografikoaren eta sor daitezkeen beharren eta aukeren azterketatik abiatuta eta, haien arabera, ekintza-planak ezarrita.
- Silver Ekintzailetza Plan bat garatuko dugu, bi ildotan:
  - Ekintzaile gehiagok gara ditzaten proiektuak eta enpresak, helburu gisa harturik merkatuan adineko pertsonen beharretara egokitutako produktu eta zerbitzu berriak sortzea.
  - 50 urtetik gorako ekintzaileei zuzendutako berariazko programak (dagoeneko silver direnak), negozio berriak abian jartzeko aholkularitza, laguntza eta finantzaketa eskaintzeko.
- Euskadiko berrikuntza-zentroekin lankidetzan, geronteknologia bultzatuko dugu; hau da, gizakion zahartzea aztertzen duen teknologia-arloa.

## ESPAZIO SOZIOSANITARIOA ETA MENDEKOTASUNA

- Eredu prediktibo bat bultzatuko dugu, EAEko biztanleek izango duten baliabide soziosanitarioen eskaera aurreikusteko —zahartzearen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen hazkundearen ondorioz—. Horretarako, Big Data sistema georreferentziatu bat baliatuko dugu.
- Xede-kolektiboentzako arreta-plazen kopurua handitu behar da: adingabeak, desgaitasuna duten pertsonak, mendekotasuna duten pertsonak, gizarte-bazterkeriako egoeran daudenak, gutxienez aipatutako dokumentuan aurreikusitako kopuruan.
- Etxeko arreta soziosanitarioko programa bat jarriko dugu martxan.
- Tarteko zainketetarako egoitza-unitate soziosanitario gehiago sortuko ditugu, aldi baterako zaintza sanitarioa eta errehabilitazioa behar duten baina ospitaleko egonaldirik behar ez duten adinekoak eta beste kolektibo batzuk artatzeko.
- Alzheimerra artatzeko eta prebenitzeko lehen plan estrategikoa egingo dugu. Alzheimerra detektatzeko protokoloak eta probak hobetuko ditugu, baita gainerako demenzia neurodegeneratiboak detektatzekoak ere.
- Ikerketa eta berrikuntza sustatuko ditugu demenzia neurodegeneratiboaren aurkako borrokan aurrera egiteko.

- Mendekotasuna duten pertsonen arreta profesionala ematen lagunduko duen programa bat bultzatuko dugu.
- Geriatriako espezialitatea bultzatuko dugu Euskal Osasun Sistemari.
- Erreferentzia-taldeak zehaztuko ditugu egoitzetako eta gainerako egoitza-zentroetako osasun-arretarako, hala nola adinekoen etxebizitza komunitarioak.

## **GIZARTE-BAZTERKERIAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ARTATZEA**

- Egungo egoeraren azterketa diagnostikoa egingo dugu lurralde historikoen arabera.
- Arreta pertsonalizatuko planak egingo ditugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta neurriak abian jartzeko laguntza bat finkatuko dugu, plano horretan jasotako prestazioak eta zerbitzuak barne.
- Erakundeen eta hirugarren sektoreko elkarrekin arteko lan partekatuan sakonduko dugu, esku-hartzea malgutzeko eta eskuragarri jartzeko aukera ematen baitu.
- Seme-alaba adingabeen haurtzaindegiz-zerbitzua sendotuko dugu gizarteratze-prozesu batean murgilduta dauden emakumeentzat.
- Premiazko neurriak bultzatuko ditugu kolektibo ahulenei etxebizitza eskuratzen laguntzeko, arazoa ahalik eta azkarren arinduko duen etxebizitza sozialerako politika integral batekin.

## **EUSKADI INKLUSIBOAGO BATERANTZ**

- Jardunbide egokien kode bat egingo eta bultzatuko dugu LGBTIQ+ pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko, hala nahi duten euskal administrazio eta erakunde guztiek atxikitzeak aukera izan dezaten.
- Sentsibilizazio-kanpainak bultzatuko ditugu diskriminazio- eta gorroto-egoerak desagerrarazteko eremu guztietan, batez ere lan-esparruan, hezkuntzan, kirolean, kulturean eta aisialdian.
- LGBTIQ+ pertsonen arretari begira, areagotu egingo ditu segurtasun eta larrialdietako kidegoen (udaltzaingoa, Ertzaintza...) prestakuntza eta sentsibilizazioa.

## **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI AUKERA-BERDINTASUNA BERMATZEAREN ERRONKA**

- Irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokienez:
  - Garraio publikoaren erabilera erraztuko dugu desgaitasuna duten pertsonekin pentsaturik, eta, horretarako, kontuan hartuko ditugu pertsona horiek ordezkatzeko dituzten elkarrekin ekarpenak, tranbian hobekuntzak ezarri eta erabilera erraztuz. Ahots bidezko abisuak ezarriko ditugu hurrengo geltoki eta lineak jakinarazteko. Ildo horretan, erakundearteko koordinazioa sustatuko dugu, Euskadi osoan doan izan dadin hiriko eta hiriarteko lineetan txartela bidaiatzeko beste pertsona baten laguntza behar duen eta desgaitasuna duen pertsonaren laguntzailearentzat ere.
  - Gida bat ezarriko dugu aholkularitza emateko, eta piktogramak edo beste hizkuntza-mekanismo batzuk ezarriko ditugu pixkanaka-pixkanaka neurodibertsitatearen bat duten eta ahozko hizkuntzarik ez duten pertsonentzat (autismoa, adimen-degaitasuna...).
  - Titulartasun publikoko leku eta espazioetan, komunitatean aldagailuak ezartzea sustatuko dugu adin desberdinetara egokituta, ez haurtxoentzat bakarrik.
  - Malgutasun handiagoa sartuko dugu Irisgarritasun eta Konpainia Osasun Txartelean.

- Hezkuntzaren arloan:

- Arreta goiztiarra: Arreta goiztiarra arautzen duen dekretua aldatuko dugu, eta, egokitze horren bidez, argituko eta ezarriko dugu osasun- eta hezkuntza-sistemek baliabide gehiagorekin eta eskola-orduetan hartu behar dituztela garapen-nahasmenduak dituzten edo halakoak izateko arriskua duten 0 eta 6 urte arteko adingabeentzako beharrezko terapiak.
- Hezkuntza-premia bereziak edo desgaitasuna duten ikasleentzako estrategia integrala onetsiko dugu. Horretarako, benetako neurriak eta finantzaketa ezarriko ditugu, kolektibo horrentzako beharrezko laguntzak bermatuko ditugu, bai integrazioan eskolatuta daudenenentzat, bai hezkuntza berezian daudenenentzat. Horretaz gainera, teknologia berriak eta informazio-teknologiak eskura jarriko dizkiegu premia bereziak dituzten ikasleei.
- Hobekuntzak ezarriko ditugu Euskadiko hezkuntza berezi publikoko ikastetxe bakarrean (Gorbeialde), eta plazak ugarituko ditugu, profil desberdinetarako modulu espezializatuak sortzea sustatuz, terapia-orduak gehituz, osasun-profilak sartuz, instalazioak hobetuz eta teknologia berrien erabilera aprobetxatuz. Era berean, hirugarren sektoreak kudeatzen dituen hezkuntza bereziko ikastetxeekin egindako itunak berrikusiko eta hobetuko ditugu.
- Zeinu-hizkuntza. Derrigorrezko eta derrigorrezkoa ez den hezkuntza arautuan, zeinu-hizkuntzako interpreteen laguntza bermatuko zaie hala behar duten ikasleei eskola-orduetan, betiere interprete horiek zeinu-mintzairaren interpretazioko goi-mailako teknikariaren titulazioa eta zeinu-hizkuntzako eta gorren komunitateko gradua badituzte.
- DBHko hirugarren eta laugarren mailetara zabalduko dugu pedagogia terapeutikoko profesionalen eta hezkuntza-laguntzako espezialisten arreta, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, oro har.
- Laguntza-lerro ireki bat ezarriko dugu, pertsona horiek eskolaz kanpoko jardueretan, kirol-jardueretan eta aisialdi-jardueretan parte hartzea errazteko behar dituzten asistentzia-profesionalak kontratatzekeo kostua finantzatu ahal izateko.
- Koordinazio soziosanitarioa eta sozioedukatioa hobetuko dugu, erantzukizun publikoko zerbitzuetan osasun-beharrei erantzun egokiagoa emateko.

- Enplegua lortzeari eta etxebizitzari dagokienez:

- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako plazak bereizi eta gordeko dira EAEko Administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomo eta sozietate guztien lan-eskaintza publikoetan.
  - Desgaitasuna duten pertsonak enpleguratzeko plan bat egingo dugu, eta ekintza positiboko neurriak sartuko ditugu, enplegu babestuan eta, batez ere, lan-merkatu arruntean sartzea errazteko.
  - Etxebizitzaren alorreko araudia aldatuko dugu, Etxebizitza Sailaren bitartez eta desgaitasunen bat duten pertsonen bizitza independenteko proiektuak errazteko, eta, hala, hobetu egingo ditugu kolektibo horrek alokairuko etxebizitzaren parkea eskuratzeko baldintzak.
  - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) bateragarritasuna arautuko dugu nolabaiteko babesaren bidez etxebizitzetan eta egoitzetan bizi diren desgaituentzat.
- Eremu guztietan inklusioa bermatzea
    - Desgaitasunen bat duten pertsonen bizitza independenterako eskubideari buruzko lehenengo euskal legea onestea sustatuko dugu. Lege horrek ezarriko ditu, modu transbertsanean eta erakunde guztien arteko lankidetzan, eskubide hori egikaritzea errazteko neurri arautzaile eta lagungarri guztiak.
    - Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonak justizia baliatuko ahal izateko plan bat egingo dugu, sistema irisgarriagoa eskaintzeko; era berean, laguntzak antolatuko dira (bideratzailearen figura) eta gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak hartuko dira.
    - Mendekotasuna eta/edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen kolektiboari zabalduko diogu etxeko langileen Gizarte Segurantzako kostuak finantzatzeko laguntza, 14 urtetik beherakoak zaintzeko langileak kontratatzekeo laguntzen antzera, enplegua errazteko eta ezkutuko ekonomiaren kasuak saihesteko.
    - Sarrerak doan eskainiko ditugu kultura-, musika- edo aisia-ikuskizun edo -instalazio publiko guztietan —edo finantzaketa publikoa jasotzen duten guztietan—, jardueraz gozatu ahal izateko beste pertsona baten laguntza behar duten eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzaileentzat.
    - Babes-programa espezifikoak sustatuko ditugu kirolari, federazio, laguntza eta instalazioetarako, desgaitasuna duten pertsonetara zuzendurik badaude.

## IMMIGRAZIOA

- Ahalegin handiagoa egin behar da legez kanpoko immigrazioa amaitzeko, eta beharrezkoa da amaitzea, orobat, egoera irregularrean dauden etorkinek jasan behar izaten dituzten egoerak, hala nola gizarte-bazterkeria, marjinalitatea, klandestinitatea, gizakien trafikoa, mafiak, abusuak...
- Jatorrian kontratatzea eta langile atzerritarren mugikortasuna sustatu behar dira, eta Euskadira datozen migratzaileek duintasunez lan egiteko eta bizitzeko moduan etorri behar dute.
- Bizikidetzaren eta kulturartekotasuna sustatzeko programa komunitarioak bultzatuko ditugu, eta arrazakeria eta xenofobia prebenitzen lan egingo dugu.
- Bereziki migratzaileei zuzendutako prestakuntza-programak eta -ibilbideak gauzatuko ditugu, haien enplegarritasuna errazteko.
- Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrek harrera-baliabideak uzten dituztenean, beharrezkoa da haien enplegarritasuna errazteko programak indartzea.
- Ez gaude ados Gobernu Zentralak Gasteizen eraikiko duen errefuxiatuen makrozentroarekin, zeina Arana egoitzako garai bateko instalazioetan baitago proiektatuta, 350 lagunentzat.

## GARAPENERAKO LANKIDETZA

- Lankidetzako politika publiko finkatu, koordinatu eta egonkor bat bermatzea, gorabehera politikoak alde batera utzita, gizarte zibil antolatuaren erakundeekin modu partekatuan indartu eta gauzatuko dena, bere espezifikotasunak eta balio erantsia abiapuntu hartuta.
- Lankidetzako politika publikoan parte hartzeko, gardentasunerako eta kontuak emateko dimentsioak indartzea, eta, horretarako, GGKEen eginkizuna sendotzea, politika horretan erreferentziatzeko eragile gisa.
- Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legea garatuko dugu, eskatzen den burokrasia arintzeko eta sinplifikatzeko, eta, era berean, lankidetzako eragileei sarrera emateko, hala nola unibertsitateei eta fundazioei, haiek ere funtsezko eginkizuna baitute nazioarteko lankidetzan, irabazi-asmorik gabe.

## GAZTERIA

- Lanbide Heziketako eskaintza zabalduko dugu EAeko hiru hiriburuetatik kanpoko eremuetan, eta Lanbide Heziketako ikastetxe espezializatuak jarriko ditugu martxan berezko ezaugarri sektorialak dituzten eskualdeetan (Arabako Errioxa, Aiarako Harana edo Enkarterri...).
- Erakundearteko lankidetzaren indartzea, BEINT bekak amaitzean ikaslea MBA ofizial batekin gaiturik geratzeko, ICEX bekekin gertatzen den bezala.
- Unibertsitate-egoitzetan plaza gehiago sustatuko ditugu, arazoizko prezioetan.
- Estimuluak ezarriko ditugu curriculum-praktikak zuzeneko enplegu-aukera bihurtzeko, batez ere praktikak egin diren arloetan.
- Kultura ekintzailearen garapena sustatuko dugu gazteen artean, eskola-etapatik hasita, bai eta aurrerago ere, gazteen ekintzailtzarako eta enplegarritasunerako informazio- eta aholkularitza-zerbitzuen bidez.
- Zerga-pizgarriak, kenkariak eta/edo hobariak proposatuko ditugu, lehenbiziko lan-jarduera Euskadin hasten duten 30 urtetik beherako euskal gazteak modu egonkorrean kontratatzeko.
- Praktikak sustatuko ditugu gure inguruko enpresetan gazteen lehenbiziko lan-jarduera gisa, eta hobariak emango ditugu praktiketatik kontratazio egonkorrera igarotzeko.
- Laguntzak bultzatuko ditugu kirol-jarduera unibertsitateko eta/edo Lanbide Heziketako ikasketekin uztartzea erabakitzen duten errendimendu handiko kirolari gazteentzat.
- Berrikuntza eta garapen teknologiko berrien aplikazioa bultzatzen duten ekintzailtza-proiektuen mezenasgoa sustatuko dugu gazteen eta enpresen artean.
- Erraztasunak eman nahi dizkiegu EAeko gazteei lehen etxebizitza erosteko, eta, horretarako, hipoteka-erraztasunak ezarriko ditugu, Eusko Jaurlaritzaren inplikazioarekin eta banku-erakundeekin eta arrisku-kapitaleko sozietateekin lankidetzan; hori horrela, banku-abalen sistema bat jarriko dugu martxan, etxebizitzaren balioaren % 100erainoko hipoteka-maileguak lortzeko.
- Euskadiko garraio publikoaren hobaria handituko dugu ikasten jarraitzen duten eta 30 urtera arte langabezian dauden gazteentzat. (Gazte Txartela)
- Hobari-politika bat ezarriko dugu hiriarteko garraioa erabiltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan maiz bidaiatzen duten ikasleentzat.
- Landa-inguruneetan bizi diren 16 urtetik gorakoei eskola-garraioa erraztuko eta bermatuko diegu, derrigorrezkoa ez den hezkuntza-etapan.

## KULTURA

- Miramar jauregia museo handi baten egoitza iraunkor bihurtu nahi dugu Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostiako kultura-eszena suspertzen laguntzeko.
- Gasteizko Principal antzokiaren erreformari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak finantzaketan modu egokian parte hartuko duela ziurtatuko dugu.
- Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Natur Zientzien Museo berri bat eraikitzeko proiektu anbiziotsua finantzatzen parte hartuko dugu.
- Kultura-proiektu garrantzitsuetarako laguntza ekonomikoa hobetuko dugu, hala nola Gatz Haranerako edo Iruña-Veleiarako, bai eta Artiumerako ere, kultura garaikideko museo eta zentro gisa.
- Bizkaiko erakundeekin batera, Larreinetako Funikularraren Museoa (Trapagaran) bultzatuko dugu, bai eta Industria Museo bat ere. Bizkaiko Zientzia Museoa ere bultzatuko dugu.
- Bilbon Trenbide Museoa sortzea sustatuko dugu Atxuriko geltokiko eraikinaren zati batean.
- Euskadiko museo etnografikoak babestuko ditugu, tradizioen, kulturaren eta gizartearen bat-egitearen lekuko.
- Intelektualen eta artisten adierazpen- eta sorkuntza-askatasuna bermatuko dugu, euskaraz zein gaztelaniaz, baita komunikabideena ere.
- Kultura eta ondare historiko-artistikoa sustatzeko aurrekontu-partidak handituko ditugu.
- Euskal Kultura Ondarearen Legeak ematen dituen tresnak erabiliko ditugu kultura-ondasun berriak aitortzeko eta haien babesa eta balioa lehenesteko.
- Euskara ondare kultural eta sozial gisa landuko dugu, eta bereizi egingo dugu tresna politiko gisa erabiltzen duten ikusmoldeetatik.
- Irakurzaletasuna eta liburuak eskuratzea sustatuko ditugu, lehentasun gisa.
- EAEko literatura- eta argitalpen-ekoizpenerako laguntza koordinatuko dugu, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, kultura-irizpideak aintzat hartuta.
- Antzerkiari, musikari, dantzari, zinemari edo arte plastikoei laguntzeko programak bultzatuko ditugu, beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- Ekimen instituzionalak areagotuko dira Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatzen duten Donejakue Bideko ibilbideak babesteko eta garatzeko.
- Arte-adierazpenen eta kultura-sorkuntzaren mezenasgoari laguntzea ere lan-ildoak izango dira, Artistaren Estatutuaren behin betiko planteamenduarekin batera.

## KIROLA EUSKADIN

- Kirol-federazioak modernizatzeko eta indartzeko laguntza emango dugu, oinarrizko euskarria baitira kirola eta haren modalitate eta diziplina guztiak antolatzeke eta kudeatzeko; era berean, babestu egingo ditugu haien egituretan eta kirolaren sustapenean berrikuntza garatzen duten ekimenak ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko 2/2023 Legearen potentzial osoa garatuko dugu.
- Bizitza Aktibo eta Osasungarrirako Euskal Plana onetsiko dugu legegintzaldirako, eta, horretarako, bizitza aktibo eta osasungarrirako oinarrizko helburuak ezarriko ditugu, kontuan hartu beharreko lehentasunak zehaztuko ditugu, eta plana indarrean dagoen bitartean horiek lortzeko bideratzen diren baliabideak eta bitartekoak identifikatuko ditugu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio osoan jarduera fisikoa modu transbertsalean sustatzeko politikak gauzatuko ditugu, eta adin handieneko biztanleen artean jarduera fisikoa egitea sustatuko dugu, osasun-maila eta bizikaltate egokiak mantentzen lagunduz.
- Kirol-epaile eta arbitroaren figura gaitzea eta espezializatzea bultzatuko dugu, kirol-antolaketaren eta -jardueraren funtsezko elementu gisa.
- Euskal pilota EAEko eta Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetako kirol-diziplinen mailarik altuenaren parte da. Etorkizunean EAEn, estatuan eta nazioartean presentzia olinpikoa izan dezan lan egingo dugu, lehenago ere gertatu zen bezala.



## EUSKAL HEZKUNTZA: ASKATASUNA ETA EMAITZAK HOBETZEA

- Ikasleek eta familiek bermatuta eduki behar dute irakaskuntza publikoa edo itunpekoa aukeratzeko askatasuna, eta biek osatu behar dute Euskal Eskola; askatasuna ikastetxea aukeratzeko, bai eta hizkuntza-eredua aukeratzeko ere.
- Ikastetxe publikoen kudeaketa-ereduak hobetuko ditugu, eta laguntza eta baliabide gehiago emango dizkiegu gehien behar duten ikastetxeei.
- Itun-moduluak handituko ditugu, itunpeko ikastetxeen finantzaketa benetako kostuetara egokitzeko.
- 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza unibertsala eta doakoa bermatuko dugu, edozein izanik ere ikastetxearen titulartasuna.
- Beharrezkoa da haurreskolen kokapena ikuskatzea eta aldatzea, auzo gazteetan kokatzea bermatzeko, hala nola Gasteizko Goikolarra auzoan.
- Batxilergoko bikaintasun-programak eta premia handienak dituzten ikastetxeei laguntzeko plan berezia bultzatuko ditugu.
- Irakurzaletasuna sustatzeko plana bultzatuko dugu.
- Ingeleseko hirueletasuna egiaz ezartzearen alde egingo dugu.
- Baliabideak emango dizkiegu beste autonomia-erkidego edota beste herrialde batzuetatik etorri eta, prestakuntza jaso ahal izateko, euskara eta gaztelania ikasi behar dituzten ikasleei, hizkuntza-errefortzuaren bidez.
- EAEko landa-inguruneen ezaugarriak kontuan hartu behar dira, batez ere sakabanatze geografikoa dagoen eremuetakoak. Uste dugu ahalegin handia egin behar dela, eta hori da gure konpromisoa, eremu horietan zerbitzuak mantentzeko, biztanleria finkatzeko eta, ahal bada, erakartzeko.
- Horregatik, landa-ingurune horietan derrigorrezkoa ez den hezkuntza-etapan, eskola-garraioa erraztu eta bermatuko diegu 16 urtetik gorakoei, helburu berberekin.
- Ikastetxeetako orientazio-zerbitzuetako langileak indartuko ditugu, bereziki bigarren hezkuntza amaitu ondorengo aukerei buruzko laguntza eta aholkularitza osoagoa eskaintzeko DBHko laugarren mailako ikasleei eta haien familiei.
- Hezkuntza-eremuan ematen diren zerbitzuetarako (eskola-materiala, jantokia, garraioa, eskola-errefortzua, eskolaz kanpoko jarduerak, eta abar) beka

akademikoen eta laguntzen sistema berrikusi eta hobetuko dugu, ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko.

- Eskola-jazarpenaren (bullyinga) aurkako protokoloak eta prozedurak berrikusiko ditugu, bai eta horiek EAEko ikastetxeetan nola aplikatzen diren ere, hobekuntzak ezartzeko.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketetan gailu digitalen erabilera ikuskatuko dugu (ordenagailu eramangarriak eta tabletak), bai eta emaitzetan izaten ari den eragina ere (irakurmenaren ulermen txikia), egoki iritzitako erregulazioa edo erabilera-mugak ezartzeko.
- Mugatu egingo dugu 12 urtetik beherakoak telefono mugikorrek joste ikastetxera, hezkuntza-komunitatearekin adostuta.

## HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA/EDO DESGAITASUNA DITUZTEN IKASLEAK

- Arreta goiztiarra: Arreta goiztiarra arautzen duen dekretua aldatuko dugu, eta, egokitze horren bidez, argituko eta ezarriko dugu osasun- eta hezkuntza-sistemek baliabide gehiagorekin eta eskola-orduetan hartu behar dituztela garapen-nahasmenduak dituzten edo halakoak izateko arriskua duten 6 urtetik beherako adingabeentzako beharrezko terapiak (eskolatuta daudenean).
- DBHko hirugarren eta laugarren mailetara zabalduko dugu pedagogia terapeutikoko profesionalen eta hezkuntza-laguntzako espezialisten arreta, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, oro har.
- Zeinu-hizkuntza. Derrigorrezko eta derrigorrezkoa ez den hezkuntza arautuan, zeinu-hizkuntzako interpreteen laguntza bermatuko zaie hala behar duten ikasleei eskola-orduetan, betiere interprete horiek beharrezko titulazioa badute.
- Desgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren aukera-berdintasuna bermatzeko, laguntza-lerro ireki bat ezarriko dugu, pertsona horiek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren laguntza-profesionalak kontratatuzko kostua finantzatu ahal izateko.

## LANBIDE-HEZIKETA BULTZATUKO DUGU MAILA GUZTIETAN

- Lanbide Heziketako plazen kopurua handituko dugu, eta arreta berezia jarriko diegu gizarte- eta produkzio-sarearen egungo eskakizunetara egokitzen direnei.
- Orientazio profesionaleko zerbitzuak indartuko ditugu ikasle eta familientzat.
- Enpresa txiki eta ertainekin eta enprekin hitzarmenak areagotzen lan egingo dugu, Lanbide Heziketa Duala sustatzeko, enpresaren eta ikastetxeen artean.
- Indarra hartzen ari diren sektoreetan finantzatzeko plaza berriak sustatuko ditugu, hala nola ekonomia digitalean eta energia berriztagarrietan.
- Eskualde bakoitzeko industria-sareak adierazitako premiak eta profesional kualifikatu eta espezializatuen eskaria kontuan hartuta, Lanbide Heziketako zentro espezializatuak ezartzea sustatuko dugu eremu geografiko jakin batzuetan. (Enologiari lotutako ikasketak Arabako Errioxan: ardogintzako teknikaria, mahastizaintzako eta ardogintzako goi-mailako teknikaria, sommelier-ikasketak, enomarketina... Indarra hartzen ari den ikus-entzunezko sektoreari laguntzea...)
- Ikastetxeak modernizatzea bultzatuko dugu, teknologia berrietara egokitzeko.

## UNIBERTSITATEA EUSKADIN

- Unibertsitatearen esparruan, gure helburu nagusiak izango dira prestakuntzan bikaintasuna lortzea, laneratze-prozesuak hobetzea eta ikerkuntzan bikaintasuna lortzea.
- Euskadiko Alderdi Popularrak unibertsitatera sartzeko proba komun bat defendatzen du Espainia osorako.
- Espezializazio handiagoa sustatuko dugu euskal unibertsitate publikoan, eskaintza ikasleen beharrei eta kezkei erantzungo dien espediente akademiko onen eskarira egokitzeko.
- Unibertsitateko irakasleen bajak estaltzeko sistemak hobetuko ditugu, eta beharrezko mekanismoak ezarriko ditugu, ordezkoa gehenez ere 48 orduko epean kontratatuta egongo dela bermatzeko.
- Curriculumaren malgutasuna bultzatuko dugu ikasleentzat, eta askatasuna sustatuko dugu hautazko irakasgaiak aukeratzeko.
- Unibertsitate-komunitatearen barruan, sailen arteko mugikortasun funtzionala bultzatuko dugu, gabeziak konpentsatzeko eta gainditzeko.



# KONEKTATUTAKO EUSKADI IREKIA: AZPIEGITURAK

- Trenbide-azpiegiturei dagokienez, hauxe proposatzen du Alderdi Popularrak:
  - Abiadura handiko trena (Euskal Y-a) Euskal Autonomia Erkidegora iristeko prozesua bizkortzea eta Atlantikoko korridorean integratzea, Euskadi Espainiako gainerako lurraldeekin eta Europarekin lotuko duen funtsezko azpiegitura gisa.
  - Iruñea-Gasteiz korridorearen lotura defendatzea, hautabide eraginkorrena delako eta aukera ona delako Euskadi osoaren garapen ekonomikorako.
  - Madril-Gasteiz-Irun konexioaren alde egiten dugu, uste baitugu hori dela biderik onena salgaiak garraiatzeko eta gure esportazioen kostu logistikoak hobetzen laguntzeko.
  - Metroaren 4. eta 5. lineak garatzea eta martxan jartzea bultzatuko dugu, Bilbotik Errekaldara eta Galdakaora.
  - Euskotrenen bide bikoitza bultzatuko dugu, zerbitzuaren ordutegiak ugaritzeko, eta, 10 minututik beherako maiztasunarekin, ibilgailu partikularraren egiazko alternatiba izan dadin.
  - Donostiako topoa lurperatzen jarraituko dugu, Donostialdea egituratuko duen “metro” bihurtu arte.
  - Loiolako Erriberako geltoki intermodala bultzatuko eta babestuko dugu, aldiriko trenekin lotzeko.
  - EHUren eta garraio-sarearen arteko konexioa hobetuko dugu Leioan, ikasleen eta unibertsitateko langileen itxaronaldiak murrizteko eta konexio ugari egin beharra murrizteko.

## ERREPIDEKO GARRAIOA

- Administrazioekin koordinatuko gara, autobietan bidesariak pixkanaka kentzeko.
- Latinoamerikako Errondan (Vitoria-Gasteiz) eta Lovaina plazan trafikoa lurperatzea bultzatu eta finantzatuko dugu, egungo zirkulazio-kolapsoa konpontzeko, Zabalganako tranbia ezartzeko obra zibileko proiektuaren barruan.

- Euskadiko errepide-sarea modernizatzeko baliabideak ugarituko ditugu, gainerako administrazio eskudunekin lankidetzan. Errekaldeko biaduktua eraisteko eta haren saihebidetza egiteko lan egingo dugu, baita Loiuo saihebidetza eraikitzeke ere.
- Ibilgailu elektrikoaren garapenari dagokionez:
  - 2025aren amaieran Euskadin auto elektrikoak kargatzeko 4.130 puntu izateko konpromisoa hartzen dugu.
  - Ibilgailu elektrikoak azkar kargatzeko azpiegiturak (gutxienez 250 kW) garatzea bultzatuko dugu Euskadiko komunikabide nagusietan, erabiltzaileek azkar eta eroso kargatu ahal izan ditzaten auto elektrikoak.
- Euskadiko errepideetan trafiko-istripuetako puntu beltzak ezabatzeko plana.
- Koordinazio- eta lankidetzaren mekanismoak ezarriko ditugu salgaien errepideko garraioaren sektorearekin.

## AIREPORTUEI DAGOKIENEZ

- Beharrezko politikak garatuko ditugu EAEko hiru aireportuen aukerak maximizatzeko: “Aireportu bakar bat, hiru terminalekin”. Horretarako, Hondarribiko aireportuaren funtzionaltasuna eta eraginkortasuna bultzatuko eta eskatuko ditugu, bai eta Forondaren erreforma integrala ere bidaiariak garraiatzeko.
- Loiuo eta Hondarribiko aireportuen eta hiriburuen arteko lotura hobetzea trenez, hori baita mugikortasun-modu efizienteena.
- Euskadiko 25.000 biztanletik gorako udalerrri guztietatik autobus-linea zuzenak sortzea sustatuko dugu, ordubetetik beherako maiztasunarekin.

## ENERGIA

- Defendatuko dugun elektrizitate-sorkuntzako mixak horniduraren segurtasuna, autohornidura eta energia-prezio merkea ahalbidetuko ditu, eta, horretarako, ezinbestekoa da ahalik eta gehien aprobetxatzea egungo potentzialtasunak eta azpiegiturak.
- Energia berriztagarrien azpiegiturak modu ordenatu eta irmoan ezartzea defendatuko dugu, ekoizpen eolikoaren % 20ra iristeko.
- Hiri-eremuetan elektrizitatea sortzeko modu berriak ezartzea sustatuko dugu, hala nola turbina eoliko horizontalak.
- Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurralde Plan Sektoriala behin betiko aurkeztea lehenetsiko dugu, modu ordenatuan ezartzeko.



# **EUSKAL ADMINISTRAZIOA: EUSKAL GIZARTEAREN BENETAKO BEHARRREN ZERBITZURA**

## **FORALTASUNA ETA AUTOGOBERNUA**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Alderdi Popularrak foru-lurraldeen eskubide historikoetan oinarritzen den euskal autogobernuaren eredua defendatzen du. Estatutuaren garapen osoarekin eta leialarekin konprometituta gaude, Konstituzioak dioenari eta Konstituzio Auzitegiak hari buruz egiten duen interpretazioari jarraikiz.
- Erabat konprometituta gaude Ekonomia Itunaren defentsan, eta kupoaren kalkuluak ahalik eta gardentasun handienaren printzipioei jarraitzea eskatzen dugu, espainiar guztien arteko elkartasuna errespetatuz.
- Erakundeen arteko koordinazio-neurriak bultzatuko ditugu, euskal administrazioen arteko gainjartze eta bikoiztasun egoerak ezabatuz.

## **MEMORIA DEMOKRATIKOA**

- Printzipio etiko ukaezina da ETAREN terrorismoa berariaz gaitzestea; mehatxuak behin betiko amaitzea, berriz, ezin hautsizko erabakia.
- Gure konpromisoa irmoa da terrorismoak eta hura babestu dutenek sekula ez lortzea zigorgabetasuna, eta sekula ez inposatzea haien kontakizuna.
- Ez da onartzekoa eragile sozialek edo erakundeek ETA talde kriminalaren historia terrorista eta delituzkoa zuritzen laguntzea.
- Biktimen eginkizun nagusia aldarrikatzen dugu, eta konpromisoa hartzen dugu haien oroimenari eta izenei bizirik eusteko.
- Biktimei denboran zehar laguntzeko programak ezarriko ditugu.

## **PERTSONEN ZERBITZURA DAGOEN EUSKAL ADMINISTRAZIO IREKIA, ERAGINKORRA, EFIZIENTEA ETA GARDENA**

- Urtero dokumentu ekonomiko bat argitaratzeko konpromisoa hartzen dugu, onetsitako eta benetan gauzatutako aurrekontuen gastuaren lurralde-banaketa zehazten duena.

- Apustu argia egiten dugu Administrazio Publikoa digitalizatzearen alde; digitalizazio horri esker, administrazio-izapideetarako sarbide elektronikoa lortuko da, aurrez aurre egin beharrik ez denean, eta, horretarako, administrazioen eta ziurtagiri elektronikoen arteko interkonexioa sustatuko da.

- 2025etik aurrera, 20 milioi euroko hiriburu-kanona ezarriko dugu urtero Euskadiko hiribururako.

- Gaur egun, gure autonomia-erkidegoa bakarrik dago Gardentasun Lege propioa onetsi gabe. Eusko Jaurlaritzak legealdiaren amaierara ekarri du, jakinda ez zuela izango onesteko denborarik. Premiazkoa da araudi hori onestea, herritarren informazio- eta partaidetza-eskaerei erantzuteko eta hain ilunak izateari uzteko.

- Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen egitura aldatuko dugu, bai haren erregulazioan, bai osaeran eta eginkizunetan, ez baitu batere eraginkortasunik.

- Kontratazio publikoetan gardentasun handiagoa bermatuko duten mekanismo eraginkorrak ezarriko ditugu, hala nola lan-eskaintza publikoetan, eta abarretan.

- Ezabatu egingo dugu euskal erakundeek diru publikoarekin egindako propaganda alderdikoa. Mugatu egingo dugu publizitate instituzionalaren gastua, eta kontrolak gogortuko ditugu, bezerokeria-sareak amaitzeko.

- “Euskadi Erraztuz” Plana: Euskadi Erraztuz Plana izenarekin, eraldaketa-prozesu integral bat bultzatuko dugu, erakunde osoari eta euskal sektore publiko osoari eragingo diona. Hiru esparru jorratuko ditu: araugintza, prozedurak eta antolaketa.

- Kanpo-auditoretza independente bat egingo dugu, eraginkortasun ezak, gabeziak eta administrazioa sinplifikatzeko hobetu daitezkeen eremu guztiak zehaztu ahal izateko.

- Administrazioa Sinplifikatzeko Legea bultzatuko dugu, eta, haren bidez, neurriak hartuko ditugu herritarrek eta enpresek Administrazioarekin dituzten harremanak hobetzeko, bai eta arauak sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko ere.

- Kudeaketa Hobetzeko Plan bat egingo dugu EAEko administrazioaren mendeko sektore publiko osoan.

- Abian jarritako neurrien ebaluazio sistematikoa ezarriko dugu, eta zehazten diren adierazleak zehaztu eta neurtuko ditugu, garaiz detektatzeko politika publikoen kudeaketan eraginkortasunik ezak edo hobetzeko aukerak, eta detektatu ondoren konpontzeko, bai eta administrazioa sinplifikatzeko ere.

- Merkatu irekien legea onetsiko dugu.

- Euskal sektore publikoan enplegua lortzea: merezimendua eta gaitasuna

- Euskal Sektore Publikoko zuzendarien estatutu bat onestea bultzatuko dugu, profirik onenak biltzen direla bermatzeko, eta, hala, sektore publikoko erakunde eta zerbitzuen kudeaketak bikaintasun- eta profesionaltasun-mailarik altuenak izan ditzan.

- Sektore publikoko goi-zuzendariak hautatzeko sistema modernizatu eta objektibatuko dugu, euskal sektore publikoko zuzendariak kontratatze eta hautatzeko agentzia espezializatu baten bidez.

- Goi-kargudunen kopurua murriztea, gure inguruko beste leku batzuetan gertatzen den bezala.

- Behin-behinekotasuna amaitzea euskal sektore publikoan.

- Telelana: Euskal sektore publikoko langileentzat lan-eredu malguak eta telelana ezartzen jarraituko dugu.

- Euskara euskal funtzio publikoan sartzeko:

- Euskadiko Alderdi Popularrak elkarbizitzarako euskara defendatzen du, inposiziorik gabea. Euskara justiziaz eta diskriminaziorik gabe, Euskadiko lurralde eta eskualdeetako errealitateari erantzunez, manipulaziorik gabe, gardentasunez, bezerokeriak alde batera utzita.

- Enplegu publikoko eskaintzak eskuratzeko irizpideak malgutzea proposatzen dugu, inposizio-tekniketarik zerbitzu eta arreta publikoko bermeetara igaroz; hala, zerbitzua emateko hizkuntzak ez du izango eraginik kalitatean. Era berean, premiazko neurriak hartuko dira, osasunaren sektorean, esaterako.

- Berrikusi egingo ditugu euskal administrazio publikoko lanpostu guztiei esleitutako profilak.

- Indargabetu egingo dugu sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko nazionalistek eta sozialistek onetsitako dekretu berria: salatzen ditugun arazoak konpondu beharrean, areagotu egiten baititu.

- Arbuiatu egiten dugu hizkuntza-arrazoiengatik gertatzen den edozein diskriminazio, dela herritarren arteko harremanetan, dela edozein elkarte edo enpresa publikoren eta administrazio publikoen arteko harremanetan.
- Espetxeen arloko eskumena
  - Espetxe-sistema moderno bat proposatzen dugu, gizarteratzeko neurriak sustatuko dituen; sistema horrek damu-prozesuen benetakotasuna bermatuko du, batez ere terrorismoaren arloan, eta erabat errespetatuko du biktimen memoria.
  - Espetxeetako funtzionarioen lan-baldintzak hobetuko ditugu, etengabe egin baitute okerrera eskumena eskuordetu zutenetik. Lanpostu-zerrendaren onespina bizkortuko dugu, B taldea sortuko dugu eta soldaten eta ordutegien baldintzak hobetuko ditugu, betiere merezimendua eta gaitasuna bermatuz langileak hautatzeko prozesuetan.
- Justizia eta kontrol-erakundeak
  - Handitu egingo dugu Delitu Ekonomiko eta Informatikoen Unitateko baliabideen zuzkidura eta agenteen prestasuna.
  - Koordinazio-mekanismoak ezarriko ditugu foru-aldundien zerga-ikuskaritzarekin, mota horretako delituak jazartzeko.
  - Euskadiko Alderdi Popularrak ustelkeriaren aurkako fiskaltza bat martxan jartzea defendatzen du.
  - Genero-indarkeriaren euskal fiskaltza sortzea proposatzen dugu, iaz genero-indarkeriak izan zuen gorakada kezkarria kontuan izanik.
  - Erreformatu egingo dugu Herri Kontuen Euskal Epaitegia arautzen duen araudia, organo independente eta fiskalizazio organo gisa, eta saihestu egingo dugu haren kontrol politikoa.
  - Beharrezkoa da bateraezintasunen erregulazio berria eta Legebiltzarraren mendeko organoaren despolitizazioa, gastuen kontrola eta administrazio publikoa mendekotasun politikorik gabe gauza daitezen.
  - Lehiaren Euskal Agintaritza erregulatzen duen araudia erreformatuko dugu, benetako erakunde espezializatua izan dadin, eta, ildo horretan, ahalik eta independentziarik eta gaitasunik handiena izan dezan merkatuetan fair playa kontrolatzeko.
  - Plan bat onetsiko dugu epaitegietako eta fiskaltzako giza baliabideak eta baliabide materialak hobetzeko, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen eskumenak garatze aldera.

Āurrera

Ācuuerdo

Āldaketa

Ābiertos

Āvance

Āukera

Āudacia



VASCO